



# **hIREKIn MUNDURA**

**Kilometroak 09  
Zurriola Ikastola  
Donostia**

## KILOMETROAK 09

**hIREKIn MUNDURA** da urriaren 4an **Zurriola Ikastolak** Donostian antolatuko duen Gipuzkoako ikastolen jai handiaren leloa. Eta, leloak ondo adierazten duen bezala, gure jaiaren inguruan guztiak bilduko gaituen ekitaldiak antolatu nahi ditugu.

Oraingo honetan **hIREKIn MUNDURA** kanta da mundura ireki nahi dugun leloa, denak bildu nahi dituen kanta.

Lelo horretan oinarriturik eta betiere **EUSKARA** eta **KILOMETROAK** sustatu nahian, **Xabier Elortza** izan da kantaren letraren sortzailea.

Kantaren doinua ikastolako ikasle ohi batzuek osatutako taldeak sortu du, **Xikinkei** taldeak hain zuzen. **Xikinkei** osatzen duten taldekideak honako hauek dira:

Ahotsa: **Iñigo Etxarri**

Gitarra: **Beñat Antxustegi**

Bajua: **Alex Barrena**

Bateria: **Eneko Etxebeste**

Kilometroak **09** KANTA [www.kilometroak.net-en](http://www.kilometroak.net-en) zintzilikatuta egongo da, nahi duenak deskargatu eta zabaldu dezan.

Hemen duzue kantaren letra:

Udazkena Donostian  
Zurriolaren ertzean  
Kilometro jai-giroa  
etorkizuna hurrean.  
Ilusioa piztu zait  
ikusit zaitudanean  
mundura egin nahi nuke  
zurekin aldamenean

Esperantza badut  
hurbilduko zara  
bat egingo dugu  
elkartuko gara.  
Ireki mundura  
ta ilusioz ekin  
**hirekin mundura**  
biok elkarrekin

Gure leioa  
mundua da,  
gure bidea  
euskara da,  
gure gogoa  
elkarlana

**KILOMETROAK!**

Era asko da munduan  
bizi ta maitatzeko,  
jolasteko, abesteko,  
ikasi ta amesteko.  
Eta ongi dakigu  
norantza nahi dugun egin,  
zuk ere bai, nahi baduzu,  
euskaraz eta elkarrekin

Ireki mundura  
ta ilusioz ekin,  
**hirekin mundura**  
biok elkarrekin.

Gure leioa  
mundua da,  
gure bidea  
euskara da,  
gure gogoa  
elkarlana  
**KILOMETROAK!**

**KILOMETROAK**  
zatoz mundura,  
**KILOMETROAK**  
goazen batera!  
**KILOMETROAK**  
zatoz mundura,  
**KILOMETROAK**  
goazen batera!  
**KILOMETROAK**  
zatoz mundura,  
**KILOMETROAK**  
goazen batera!

Ireki mundura  
ta ilusioz ekin,  
**hirekin mundura**  
biok elkarrekin.

Gure leioa  
mundua da,  
gure bidea  
euskara da,  
gure gogoa  
elkarlana  
**KILOMETROAK!**

## **LELOA:**

### **Esanahia:**

Kantarekin genion moduan, leloak ere gauza bera adierazi nahi du: mundura ireki nahi dugula, geure kultura transmititu eta beste kulturekin batera mundua eraldatu nahi dugula, eta horretarako hi, zu, gu guztiok beharrezkoak garela, elkartu egin behar garela.

### **Zertarako?**

Gure hizkuntzaren iraupena bermatzeko, gure euskaldun sena ziurtatzeko, munduko partaide garela ezagutarazteko.

### **Eta hori nola?**

Kantak dion moduan:

**GURE LEIHOA  
MUNDUA DA,  
GURE BIDEA  
EUSKARA DA,  
GURE GOGOIA  
ELKARLANA!!**

**ZATOZ MUNDURA  
GOAZEN BATERA  
ILUSIOZ  
ELKARREKIN!!!**

## **LOGOA:**

### **Esanahia:**

Erraza ez bada ere, norberak bere interpretazioa ematen baitu, leloa ikus dezakegu irudian.

**Irudi borobila:** mundua ote?

**Olatuak azpian:** Donostian nola ez dugu itsasoa irudikatuko? Gu guztiok olatu horietan gaude, mundua mugitzen, indarra ematen aurrera jarraitu dezan, gure kemena helaraziz.

Jar ezazue irudimena lanean. Zer ikusten duzue zuek irudi horretan?

# hIREKI n MUNDURA


2009ko **KILOMETROAK** festaren aurrean ikasleekin lantzeko hainbat proposamen aurkeztuko dizkizuegu.

Adin ezberdinetako ikasleekin lantzeko jarduerak aurkituko dituzue. Zuek erabaki, adinaren eta daukazuen denboraren arabera, zein iruditzen zaizuen egokia zuen ikasleekin lantzeko.

HELBURUAK	JARDUERAK	ADINA
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ KMK festan parte hartzeko motibatzea.</li> <li>▪ Horrelako festa bat aurrera ateratzeko parte hartzeak eta elkarlanak duen garrantziaz kontzientziaztea.</li> <li>▪ KMK festak euskaldun garenok elkartzen gaituela eta euskararen erabilera sustatu nahi duela ikustaraztea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kantaren letra landu.</li> <li>▪ Leloa landu.</li> <li>▪ Ekitaldiak aurkeztu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Adin guztiak.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Memoria garatzea</li> <li>▪ Erritmo gaitasuna garatzea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kantaren letra eta doinua ikasi.</li> <li>▪ Kantaren erritmoa txaloz eta gorputzaren mugimenduz jarraitu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Adin guztiak.</li> <li>▪ HH eta LHko 1. zikloa.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Irakurketa eta idazketa bereganatzen joatea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Leloaren hizkiak identifikatu.</li> <li>▪ Eredua jarraituz, hizkiekin leloa osatu.</li> <li>▪ Eredurik gabe hizkiekin leloa osatu.</li> <li>▪ Abestian dauden hutsuneak bete.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ HH</li> <li>▪ HH 5 urte, LH 1</li> <li>▪ LH 2, 3 eta 4</li> <li>▪ LH 2. eta 3. zikloak</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Eskuaren kontrola garatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Irudia jarraituz, logoa margotu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ HH eta LH 1. zikloa.</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Egitura espaziala garatzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Puzzleak osatu.</li> <li>▪ Mapan leku zehatz batzuk kokatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ HH eta LH 1 eta 2</li> <li>▪ LH</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Euskara aberastea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Kantaren letra ikasi.</li> <li>▪ Kantaren hutsuneak bete.</li> <li>▪ Leloa landu: <b>h</b> eta <b>n</b> hizkiekin leloan daukaten funtzioa aztertu: esanahia erabat aldatzen da, eta bi esanahiek helburua osatzen dute.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Adin guztiak.</li> <li>▪ LH eta DBH</li> </ul>
<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Donostia ezagutzea.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ <b>“Donostia, gure hiria”</b> dokumentua irakurri eta, interesgarria ikusiz gero, landu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ LH eta DBH</li> </ul>



kmk 09 donostia zurriola



h	l	R	E	K
l	h	M	U	N
D	U	R	A	



h	l	r	e	k	l	n
---	---	---	---	---	---	---

m	u	n	d	u	r	a
---	---	---	---	---	---	---

HIZKIAK MOZTU ONDOREN, EREDUA JARRAITUZ, LELOA OSATU.

# hIRÉKIN MUNDURA

--	--	--	--	--	--	--

--	--	--	--	--	--	--

**EREDURIK GABE LELOA OSATU MOZTUTAKO HIZKIAK TAULAN ITSATSIZ.**

--	--	--	--	--	--	--

--	--	--	--	--	--	--

ZATIAK MOZTU ETA PUZZLEA OSATU



## HUTSUNEA BETE:

Udazkena Donostian  
Zurriolaren ertzean  
Kilometro jai-giroa  
etorkizuna hurrean.  
Ilusioa piztu zait  
ikusitaz zaitudanean  
mundura egin nahi nuke  
zurekin aldamenean

Esperantza badut  
hurbilduko zara  
bat egingo dugu  
elkartuko gara.  
Ireki mundura  
ta ilusioz ekin  
**hi REKI n MUNDURA**  
biok elkarrekin

Gure l\_ \_ \_ \_ \_  
mundua da,  
gure b\_ \_ \_ \_ \_  
euskara da,  
gure g\_ \_ \_ \_ \_  
elkarlana  
**KILOMETROAK!**

Era asko da munduan  
bizi ta maitatzeko,  
jolasteko, abesteko,  
ikasi ta amesteko.  
Eta ongi dakigu  
norantza nahi dugun egin,  
zuk ere bai, nahi baduzu,  
euskaraz eta elkarrekin

Ireki mundura  
ta ilusioz ekin,  
**hi REKI n MUNDURA**  
biok elkarrekin.

Gure l\_ \_ \_ \_ \_  
mundua da,  
gure b\_ \_ \_ \_ \_  
euskara da,  
gure g\_ \_ \_ \_ \_  
elkarlana  
**KILOMETROAK!**

**KILOMETROAK**  
zatoz mundura,  
**KILOMETROAK**  
goazen batera!  
**KILOMETROAK**  
zatoz mundura,  
**KILOMETROAK**  
goazen batera!  
**KILOMETROAK**  
zatoz mundura,  
**KILOMETROAK**  
goazen batera!

Ireki mundura  
ta ilusioz ekin,  
-----  
biok elkarrekin.

Gure l\_ \_ \_ \_ \_  
mundua da,  
gure b\_ \_ \_ \_ \_  
euskara da,  
gure g\_ \_ \_ \_ \_  
elkarlana  
-----!

Donostia gaia lantzea egokia iruditzen bazaizue, hurrengo orrian planoak aurkezten dizuegu. Bertan seinalaturik dituzue:

Itsasoa: **Kantauri**

Mendiak: **Ulía, Urgull, Igeldo.**

Uhartea: **Santa klara.**

Zubiak: **Kursaal, Santa Catalina, M<sup>a</sup> Cristina, Mundaiz.**


Ibaia: **Urumea.**

Hurrengo orrian ikasleek koka ditzakete aipaturako guneak.

Horrekin batera, "**Donostia, gure hiria**" dokumentua eskura jartzen dizuegu. Bertan gure hiriari buruzko hainbat datu eta bitxikeri aurkituko dituzue.



# GEZIEK SEINALATZEN DITUZTEN TOKIEN IZENAK IDATZI





## HIZKI-SALDA

Aurki itzazu hizki-saldan ondorengo izenak (maiuskulaz idatzita daudenak):

Zubiak: **KURSAAL, SANTA CATALINA, MARIA CRISTINA, MUNDAIZ**

Ibaia: **URUMEA**

Mendiak: **ULIA, URGULL, IGELDO**

Uhartea: **SANTA KLARA**

09 KMK, leloa: **HIREKIN MUNDURA**

Antolatzailea: **ZURRIOLA IKASTOLA**

Bertsolaria: **BILINTX**

Z	R	A	V	E	L	U	R	U	M	E	A	P	F	K	A
U	E	R	B	T	K	U	R	S	A	A	L	O	I	R	U
R	D	N	R	D	A	I	A	R	I	T	Z	A	R	M	L
R	F	I	F	S	N	A	D	O	D	E	N	R	T	A	I
I	S	A	N	T	A	C	A	T	A	L	I	N	A	Z	A
O	X	T	N	I	A	G	N	I	M	I	A	K	N	G	R
L	U	J	G	B	I	R	O	N	W	B	F	D	O	T	R
A	R	F	M	A	R	I	A	C	R	I	S	T	I	N	A
I	G	R	U	E	B	U	K	E	B	A	E	S	A	B	E
K	U	O	N	N	A	G	Z	K	I	M	D	B	I	I	T
A	L	A	D	X	U	I	G	E	L	D	O	E	T	L	A
S	L	O	A	Z	F	O	B	U	I	U	T	H	X	I	Z
T	P	U	I	A	Z	S	V	K	N	L	I	G	O	N	X
O	O	G	Z	R	I	T	R	Z	X	A	R	O	Z	T	O
L	T	S	A	N	T	A	K	L	A	R	A	S	B	X	K
A	Z	H	I	R	E	K	I	N	M	U	N	D	U	R	A

Z	R	A	V	E	L	U	R	U	M	E	A	P	F	K	A
U	E	R	B	T	K	U	R	S	A	A	L	O	I	R	U
R	D	N	R	D	A	I	A	R	I	T	Z	A	R	M	L
R	F	I	F	S	N	A	D	O	D	E	N	R	T	A	I
I	S	A	N	T	A	C	A	T	A	L	I	N	A	Z	A
O	X	T	N	I	A	G	N	I	M	I	A	K	N	G	R
L	U	J	G	B	I	R	O	N	W	B	F	D	O	T	R
A	R	F	M	A	R	I	A	C	R	I	S	T	I	N	A
I	G	R	U	E	B	U	K	E	B	A	E	S	A	B	E
K	U	O	N	N	A	G	Z	K	I	M	D	B	I	I	T
A	L	A	D	X	U	I	G	E	L	D	O	E	T	L	A
S	L	O	A	Z	F	O	B	U	I	U	T	H	X	I	Z
T	P	U	I	A	Z	S	V	K	N	L	I	G	O	N	X
O	O	G	Z	R	I	T	R	Z	X	A	R	O	Z	T	O
L	T	S	A	N	T	A	K	L	A	R	A	S	B	X	K
A	Z	H	I	R	E	K	I	N	M	U	N	D	U	R	A

## IBAIA


**Urumea ibaiak** Donostia zeharkatzen du. Ezkurra herri aldean sortzen da, Nafarroan, Donostiatik 46 kilometrora. Ibaiadar nagusia Añarbe da.



Erdi Aroan Urumea garraio bidea izateaz gain, donostiarrak itsasontzi apainetan arraunean pozik ibiltzen ziren eta ibaian gora Loiola auzoraino joaten ziren. Gero, hiria zabaltzen hasi zen eta horma tartean sartu zuten ibaia.

## DONOSTIA ORAIN DELA MILAKA URTE

Denboran zehar Donostiaren itxura aldatu egin da. Orain dela urte asko, Urgull mendia uhartea zen.



Gaur egun Alde Zaharra dagoen tokian, itsasoak eta ibaiak ekarritako hondarra besterik ez zegoen. Hondartza luze bat zegoen, Uliatik Igeldoraino. Toki hura zoragarria izango zen. Harea garbi eta xehezko hondartza luze eta isila... Eta olatu zuriak hantxe hiltzen edo desegiten zirenean... Zuria eta urdina. Horregatik kolore horiek izan dira, aspaldidanik, gure banderarenak.

Noiz etorri zen gizona paraje hauetara? Bakarrik dakigu historiaurreko gizona inguruko leize-zuloetan bizi izan zela: Aitzbitarten (Errenderia), Altxerrin (Orio), Marizulon (Urnieta), Ekainen eta Urtiagan (Deba).

Historian salto handi bat egin eta 1000. urtean kokatuko gara. Bi jende multzo sortu zen Donostian. Lehenengoa, lehen aipatu dugun bezala, betidanik Antigua deitu zaion tokian; pertsona horiek nekazariak ziren. Beste talde txiki bat Urgull mendiaren babesean (ordurako Urgull mendia ez zen uhartea) eta gehienak arrantzaleak ziren.




Garai horretako agiri batean aipatzen da lehenengo aldiz Donostia izena. Aipatzekoa da Donostia eta Euskal Herri guztia Nafarroa zela.

Garai hartan Donostiako portuak indar handia zuen.

Garrantzia merkataritzak ematen zion, eta ez hainbeste arrantzak. Horregatik Donostiako armarrarian itsasontzi bat agertzen da, baina ez da arrantza-ontzi bat, merkantzia-ontzi bat baizik.

1500. urtearen inguruan Donostia 500 biztanle zituen, hiri txiki eta harresitu bat zen.



Kaleak oso estuak ziren, eta etxeak bi edo hiru pisukoak, zurezkoak gehienak. Biztanle artean hiru motatako jendea zegoen: **kaletarrak**, dendariak edo artisauak; **jauntxoak**, dendari aberatsak edo fabrika txikien jabeak; azkenik, **baserritarrak eta arrantzaleak**. Multzoko bakoitzeko jendeak janzteko era propioa zuen.

Hizkuntza, ia bakarra, **euskara**.

### **1800. URTEAREN INGURUAN** **EGUN BAT DONOSTIAN**

Duela 100 bat urte arte gure hiria harresitua zegoen. Oraindik ere Urgull mendian eta Boulevard-eko parkingean arrastoak ikus daitezke, eta kaian harresi zati batean oroitari bat ikus dezakegu.




Harresiak Donostia defendatzeko eraiki ziren, eta babesa Urgulleko gazteluan oinarritua zegoen. Hirian sartzeko 3 ate zeuden, horietatik garrantzitsuena "Lehorreko atea" gaur egun Alde Zaharreko Kale Nagusiaren sarrera dagoen tokian.

Orain dela 200 urte hiriak, gutxi gora-behera, 4000 biztanle zituen. Hiri bihotzean enparantza bat zegoen, Enparantza Berria, gaur egungo Konstituzio enparantza. Garai hartako itxura mantentzen du, beraz, ikus dezakezuenetz laukia da, eta inguratzen duten etxeak harrizkoak dira. Balkoi eta leiho gainean zenbakiak dituzte.

Zenbaki horiek enparantza zertarako egin zen adierazten digute:

zezen plazetan bezala, eserlekuak bereizteko ziren. Donostiarrak



sokamuturra eta zezen festa zaleak zirenez, enparantza berri hori egin zuten jaialdi horiek ospatzeko.

Ondoren beste hiru zezen plaza izan dira Donostian:  
Atotxakoa, 1876an inauguratua;  
Txofreko plaza egin arte iraun zuen.



Txofreko plaza mendixka baten gainean eraiki zen; 1974ean bota zuten.

Martuteneko auzoan hirugarren zezen plaza eraiki zuten 1908an eta 1923 arte iraun zuen irekita; hau izan zen lehenengo plaza estalia.

Berriro atzera joko dugu denboran eta enparantza Berria eraiki zen garaira joango gara. Ordurako, Santa Maria eta San Bizente elizak ere eraikiak ziren.

Kaleetan saltzaile ibiltariak produktuak oihuka eskaintzen zituzten.

Haurrak, ia gaur bezala, eskolan eta jolasean ibiltzen ziren. Mutilentzat, maisu bakarra zen, neskentzat, berriz, andereño bat baino gehiago. Ikasgelak goibelak eta ilunak ziren. Mahai bateratuetan eserita haurrak ezin ziren mugitu. Gramatika, Kaligrafia, Aritmetika, Kristau Ikasbidea ikasten zuten; ez zuten, ordea, marrazkirik, ez eskulanik egiten.

Zeintzuk zituzten jolasak? "Perracha" zegoen modan. Makila luze batzuen bitartez, pilota leku mugatu batetik kanpora bidali behar izaten zen, eta, "urdina" oihua entzuten bazen, aurkakoaren oina jo zitekeen. Beste jolasa, "sosomusuetan" izenekoa, gure "oilo itsuaren" antzekoa. Bati txapelaz aurpegia estali eta bizkarrean kolpeak ematen zitzaizkion; kolpeak emateko ere txapela erabiltzen zen. Lagun bat harrapatu eta ezagutu egin behar izaten zen. Beste jolas bat, "pulluetan" izenekoa eta gaurko "poliziak eta lapurrak" jolasaren parekoa zen. Pilota partiduak ere egiten zituzten edozein horma edo harresietan. Eta helduentzat, jakina, zezenak, sokamuturra eta zezen suzkoa ziren jolas gogotsuenak.



*Halakoa zen Donostia 1800. urtearen inguruan: hiri txiki bat, alai eta langilea, harresi barruan. Aipatu bezala, Donostiar gehienak arrantzaleak edo merkataritxiak ziren. Baserritarrak baserritik hirira erosketak egitera eta esnea eta barazkiak saltzera jaisten ziren. A! eta hirizainek laguntzen zieten beti.*

### **1813KO ABUZTUAREN 31**

*Napoleon enperadore frantsesaren soldadu taldeek Donostia hartuta zeukaten. Espainiar, berriz, ingeles eta portugesen laguntzaz frantsesak menderatzea lortu zuten. Frantsesen eskuetan herri gutxi gelditzen ziren, horietako bat Donostia.*

*Donostiarantz jo zuten bada, ingelesek, portugesek eta espainolek elkartuta. Bonbardaketa luze baten ondorioz, harresietan tarte handiak egin ziren eta hortik sartu ziren Donostian talde elkartuak. Frantsesek harresi ondoan bolborategi bat zuten eta hori bere gisa lehertu egin zen. Eztanda handi hark frantsesen artean izugarrizko nahasketa sortu zuen eta Urgull mendian dagoen gaztelura erretiratu ziren. Orduan elkartuek berehala bereganatu zuten Donostia.*



*Eta orain gauzarik harrigarriena: Donostiarrek lehenbailehen askatzaileak agurtu nahi zituzten, baina horiek hiriari sua eman zioten, lapurretak egin, bertakoak hil eta izugarrikeriak aurrera eraman zituzten. Alde Zaharreko San Jeronimo kalearen hasieran, oroitari batean, irakur daiteke gertatu zena.*

*Guztira 12 errealdi izan zituen Donostiak, eta guztietatik kaltetsuena aipatutako azken hori.*

*Gaur egungo Alde Zaharrean, Urgull mendi magaleko etxe batzuk izan ezik, Donostiako beste guztiak kiskali egin ziren. Horregatik, lehen Trinidad kalea zenak orain "Abuztuaren 31" du izena.*

*Oraindik hondakinak ketan zeudela, donostiarrek hiria berritzea erabaki zuten. Lehen 237 etxe zeuden tokian, 120 etxe bakarrik egin*

ziren, etxe handiagoak, alegia. Alde Zaharrea zerorrek ikus dezakezu Donostia nola geratu zen.

1863an harresiak botatzeko baimena lortu zen eta horrekin Donostia zabaltzen hasi zen.

## ZUBIAK

Hiria oso denbora gutxian zabaldu zen. Lehenengo Erdi Aldea sortu zen Amara Zaharreraino iritsi arte. Ibaiaren eskuin aldean ere eraikitzen hasi ziren Gros auzoa sortuz. Hiriaren bi aldeak lotzeko, 1872an, **Santa Katalina** zubia eraiki zen. Harrizko zubi honek aurretik izan ziren egurrezko hainbat zubi ordezkatu zituen. **Maria Kristina** zubia, Norteko geltokiaren ondoan dagoena, 30 urte beranduago eraiki zen. Hirugarrena, 1922an, **Zurriola** zubia (gaur egun **Kursaal** deitzen zaiona) egin zen; horretarako borroka latza garaitu behar izan zuten itsasoarekin. Laugarren zubi bat **Mundaiz** zubia, 2000n inauguratutakoa dugu. Bosgarren zubi bat eraikitzen ari dira une honetan.

## JAIK

**Santo Tomas** egunean, abenduaren 21ean, baserrietako maizterrak urteko errenta ordaintzera etortzen ziren eta jabeen etxean bazkaltzera gonbidatuak izaten ziren

Konstituzio Enparantzan jartzen da feria gaur egun ere eta baserriko produktuak erosteko aukera izaten da. Txistorra eguna da:

Santu Tomaseko feria, txorizoa eta ogia!

**Eguberrietan** Donostiara ere **Olentzero** etortzen da eta festa hauei hasiera ematen die.



Ospe handieneko festa, urtarrilaren 20an, **San Sebastian** eguna dugu. Danborrada da jaiaren protagonista. Danborrada XIX. mende hasieratik dator. Batzuk diotenez, okinek eta urketariek kupelak kolpatuaz jotzen omen zituzten hain maiz entzuten zituzten gudu martxak. Kolpe haietatik ote dator danborrada? Ziur dakiguna da danborrada hemen ikusitako soldadu erreskaden imintzio irrigarria dela, donostiarren umore onaren agiria. Gero, San Sebastian martxa Raimundo Sarriegi jaunak egin zuen. Argazkian ikus



dezakezue XIX. mendeko urketari bat. Jantzia gaur egun danborradan parte hartzeko erabiltzen dute emakumeek.

Otsailaren lehenengo larunbatean ospatzen da **Kalderero** jaia. Kaldereroek abesten eta dantzan ibiltzen dira kalez kale eta kanpamentua Konstituzio eta Txofre Enparantzetan egiten dute. Batzuk diote ijitoei egiten zitzaien omenaldi bat dela festa hau. Garai batean ijitoak Donostiara etortzen omen ziren eta hemen, eltzeak eta tresna zaharrak konpontzen, bolada handiak igarotzen omen zituzten.



**Inauteriak** 1882 eta 1900 urteetako inauteriak entzute eta ospe handikoak izan ziren, Europako hoberenetakoak. Hainbat urteetan debekatuak izan ondoren, duela urte batzuk berriro ospatzen hasi ziren.

**Aste Nagusia** abuztuan ospatzen da. Jai hauek ospetsuak dira batez ere bere su artifizialengatik.

**Euskal jaiak** irailean ospatzen dira. Egun horietan, kultur eta kirol-ekintza ugari antolatzen dira. Eta ekintza horien barruan, iraileko 1. eta 2. igandeetan, Kontxako estropadak egiten dira.

## **DONOSTIAR OSPETSUAK**

Donostian pertsona ospetsu asko jaio dira, eta ekintza desberdinetan nabarmendu dira: idazleak, musikariak, erlijiosoak, politikoak... Hainbat kale gizon horien izena daramate, eta horri esker izen horiek ezagunak egiten zaizkigu.

Hona hemen horietako batzuk:




**Erausoko Katalina** Donostian jaio zen 1592an eta Mexikon hil 1650ean. Txikitan gurasoek Donostiako domingotarren moja-etxean sartu zuten; baina, hamabi urte zituenean komentutik ihes egin eta handik aurrera mutiltzat pasatzea erabaki zuen. Morroi ibili zen Gasteizen eta Bilbon eta 1605ean Pasaiako portuan Amerikarantz itsasoratu zen. Ameriketara abentura luzeei eta ikusgarriei ekin zion; morroi, soldadu, iheslari, preso borrokalari,

eta horrelako anitz ezagutu zituen. Txilen zegoela, Alonso Diaz izenarekin soldadu bihurtu eta alferiz izatera iritsi zen. Hamaika istilu eta liskarretatik ihes egitea lortu zuen babesleren bat zela medio gehienetan, baina, Perun zaurituta gertatu zenean emakume zela aitortu behar izan zuen. Berria Espainiako inperio osora zabaldu zen. Komentu batean egon zen ondoren, Aita Santuak komentutik kanpo bizitzeko baimena eman zion arte. Felipe IV.ak emandako biziarteko pentsioarekin, Mexikora itzuli zen (1630). Bere biografia idatzi zuen 1624ean.



**Raimundo Sarriegi:** musikarien artean donostiarrena. Opera eta zartzuela landu bazituen ere, guk San Sebastian martxaren egilea bezala ezagutzen dugu. Bereak dira baita danborradan jotzen diren beste hainbat abesti.

**Jose Maria Usandizaga:** musikaria hau ere. Txikitatik hasi zen bere musikarako trebetasuna nabarmentzen. Beste obra askoren artean operak idatzi zituen.



**Pio Baroja:** idazlea. 100 nobela baino gehiago idatzi zituen. Euskal Herria eta euskaldunei buruz asko idatzi zuen.

**Bilintx:** bertsolaria. Bere izena Indalezio Bizkarrondo zen. Umetan paretara igo, handik erori eta aurpegia desitxuratuta gelditu omen zitzaion. Soka-muturrean behin zezenak adarkatu eta hanketan zauri larriak egin zizkion; aurrerantzean errenka ibili zen betiko. 1876ko San Sebastian egunean, karlistek botatako granada bat sartu zitzaion leihotik etxera, Antzoki Zaharrean bizi zelarik, bertako zaindari izan baitzen urtetan. Granada lehertu eta zangoak moztu omen zizkion.



Zaurien ondorioz uztailean hil egin zen. Maitasunaz eta edertasunaz idatzi zituen bere poema gehienak.



**Antonio Okendo** Donostian jaio zen 1577an eta A Coruña-n hil 1640an. Militar donostiarra izan zen. Kapitain jeneral eta almirante nagusi izan zen. Espainia eta Holandaren arteko gerran, itsas gudu askotan parte hartu zuen holandarren aurka; Felipe IV.ak bizkonde titulua eman zion.

erosketak egitera eta esnea eta barazkiak saltzera jaisten ziren. A! eta hirizainek laguntzen zieten beti.

### **1813KO ABUZTUAREN 31**

Napoleon enperadore frantsesaren soldadu taldeek Donostia hartuta zeukaten. Espainian, berriz, ingelesen eta portugesen laguntzaz frantsesak menderatzea lortu zuten. Frantsesen eskuetan herri gutxi gelditzen ziren, horietako bat Donostia.

Donostiarantz jo zuten bada, ingelesek, portugesek eta espainolek elkartuta. Bonbardaketa luze baten ondorioz, harresietan tarte handiak egin ziren eta hortik sartu ziren Donostian talde elkartuak. Frantsesek harresi ondoan bolborategi bat zuten eta hori bere gisa lehertu egin zen. Eztanda handi hark frantsesen artean izugarrizko nahasketa sortu zuen eta Urgull mendian dagoen gaztelura erretiratu ziren. Orduan elkartuek berehala bereganatu zuten Donostia.



Eta orain gauzarik harrigarriena: Donostiarrek lehenbailehen askatzaileak agurtu nahi zituzten, baina horiek hiriari sua eman zioten, lapurretak egin, bertakoak hil eta izugarrikeriak aurrera eraman zituzten. Alde Zaharreko San Jeronimo kalearen hasieran, oroitarri batean, irakur daiteke gertatu zena.

Guztira 12 errealdi izan zituen Donostiak, eta guztietatik kaltetsuena aipatutako azken hori.

Gaur egungo Alde Zaharrean, Urgull mendi magaleko etxe batzuk izan ezik, Donostiako beste guztiak kiskali egin ziren. Horregatik, lehen Trinidad kalea zenak orain "Abuztuaren 31" du izena.

Oraindik hondakinak ketan zeudela, donostiarrek hiria berritzea erabaki zuten. Lehen 237 etxe zeuden tokian, 120 etxe bakarrik egin ziren, etxe handiagoak, alegia. Alde Zaharrean zerorrek ikus dezakezu Donostia nola geratu zen.

1863an harresiak botatzeko baimena lortu zen eta horrekin Donostia zabaltzen hasi zen.

## ZUBIAK

Hiria oso denbora gutxian zabaldu zen. Lehenengo Erdi Aldea sortu zen Amara Zaharreraino iritsi arte. Ibaiaren eskuin aldean ere eraikitzen hasi ziren Gros auzoa sortuz. Hiriaren bi aldeak lotzeko, 1872an, **Santa Katalina** zubia eraiki zen. Harrizko zubi honek aurretik izan ziren egurrezko hainbat zubi ordezkatu zituen. **Maria Kristina** zubia, Norteko geltokiaren ondoan dagoena, 30 urte beranduago eraiki zen. Hirugarrena, 1922an, **Zurriola** zubia (gaur egun **Kursaal** deitzen zaiona) egin zen; horretarako borroka latza garaitu behar izan zuten itsasoarekin. Laugarren zubi bat **Mundaiz** zubia, 2000n inauguratutakoa dugu. Bosgarren zubi bat eraikitzen ari dira une honetan.

## JAIK

**Santo Tomas** egunean, abenduaren 21ean, baserrietako maizterrak urteko errenta ordaintzera etortzen ziren eta jabeen etxean bazkaltzera gonbidatuak izaten ziren

Konstituzio Enparantzan jartzen da feria gaur egun ere eta baserriko produktuak erosteko aukera izaten da. Txistorra eguna da:

Santu Tomaseko feria,  
txorizoa eta ogia!

**Eguberrietan** Donostiara ere **Olentzero** etortzen da eta festa hauei hasiera ematen die.



Ospe handieneko festa, urtarrilaren 20an, **San Sebastian** eguna dugu. Danborrada da jaiaren protagonista. Danborrada XIX. mende hasieratik dator. Batzuk diotenez, okinek eta urketariek kupelak kolpatuaz jotzen omen zituzten hain maiz entzuten zituzten gudu martxak. Kolpe haietatik ote dator danborrada? Ziur dakiguna da danborrada hemen ikusitako soldadu erreskaden imintzio irrigarria dela, donostiarren umore onaren agiria. Gero, San Sebastian martxa Raimundo Sarriegi jaunak egin zuen. Argazkian ikus dezakezue XIX. mendeko urketari bat. Jantzia gaur egun danborradan parte hartzeko erabiltzen dute emakumeek.

Otsailaren lehenengo larunbatean ospatzen da **Kalderero** jaia. Kaldereroek abesten eta dantzan ibiltzen dira kalez kale eta kanpamentua Konstituzio eta Txofre Enparantzetan egiten dute. Batzuk diote ijitoei egiten zitzaien omenaldi bat dela festa hau. Garai batean ijitoak Donostiara etortzen omen ziren eta hemen, eltzeak eta tresna zaharrak konpontzen, bolada handiak igarotzen omen zituzten.



N.º 18. UNA VISITA DE OTROS MUNDOS  
Cliché de Miguel Aguirre, fotógrafo, Alameda, 11

SAN SEBASTIÁN, CARNAVAL DE 1908

**Inauteriak** 1882 eta 1900 urteetako inauteriak entzute eta ospe handikoak izan ziren, Europako hoberenetakoak. Hainbat urteetan debekatuak izan ondoren, duela urte batzuk berriro ospatzen hasi ziren.

**Aste Nagusia** abuztuan ospatzen da. Jai hauek ospetsuak dira batez ere bere su artifizialengatik.

**Euskal jaiak** irailean ospatzen dira. Egun horietan, kultur eta kirol-ekintza ugari antolatzen dira. Eta ekintza horien barruan, iraileko 1. eta 2. igandeetan, Kontxako estropadak egiten dira.

## **DONOSTIAR OSPETSUAK**


Donostian pertsona ospetsu asko jaio dira, eta ekintza desberdinetan nabarmendu dira: idazleak, musikariak, erlijiosoak, politikoak... Hainbat kale gizon horien izena daramate, eta horri esker izen horiek ezagunak egiten zaizkigu.

Hona hemen horietako batzuk:



**Erausoko Katalina** Donostian jaio zen 1592an eta Mexikon hil 1650ean. Txikitan gurasoek Donostiako domingotarren moja-etxean sartu zuten; baina, hamabi urte zituenean komentutik ihes egin eta handik aurrera mutiltzat pasatzea erabaki zuen. Morroi ibili zen Gasteizen eta Bilbon eta 1605ean Pasaiako portuan Amerikarantz itsasoratu zen.

Ameriketan abentura luzeei eta ikusgarriei ekin zion; morroi, soldadu, iheslari, preso borrokalari, eta horrelako anitz ezagutu zituen. Txilen zegoela, Alonso Diaz izenarekin soldadu bihurtu eta alferiz izatera iritsi zen. Hamaika istilu eta liskarretatik ihes egitea lortu zuen babesleren bat zela medio gehienetan, baina, Perun zaurituta gertatu zenean emakume zela aitortu behar izan zuen. Berria Espainiako inperio osora zabaldu zen. Komentu batean egon zen ondoren, Aita Santuak komentutik kanpo bizitzeko baimena eman zion arte. Felipe IV.ak emandako biziarteko pentsioarekin, Mexikora itzuli zen (1630). Bere biografia idatzi zuen 1624ean.




**Raimundo Sarriegi**: musikarien artean donostiarrena. Opera eta zartzuela landu bazituen ere, guk San Sebastian martxaren egilea bezala ezagutzen dugu. Bereak dira baita danborradan jotzen diren beste hainbat abesti.

trebetasuna nabarmentzen. Beste obra askoren artean operak idatzi zituen.




**Jose Maria Usandizaga**: musikaria hau ere. Txikitatik hasi zen bere musikarako



**Pio Baroja**: idazlea. 100 nobela baino gehiago idatzi zituen. Euskal Herria eta euskaldunei buruz asko idatzi zuen.

**Bilintx**: bertsolaria. Bere izena Indalezio Bizkarrondo zen. Umetan paretara igo, handik erori eta aurpegia desitxuratuta gelditu omen zitzaion. Soka-muturrean behin zezenak adarkatu eta hanketan zauri larriak egin zizkion; aurrerantzean errenka ibili zen betiko. 1876ko San Sebastian egunean, karlistek botatako granada bat sartu zitzaion leihotik etxera, Antzoki Zaharrean bizi zelarik, bertako zaindari izan baitzen urtetan. Granada lehertu eta zangoak moztu omen zizkion. Zaurien ondorioz



*uztailean hil egin zen. Maitasunaz eta edertasunaz idatzi zituen bere poema gehienak.*



**Antonio Okendo** Donostian jaio zen 1577an eta A Coruña-n hil 1640an. Militar donostiarra izan zen. Kapitain jeneral eta almirante nagusi izan zen. Espainia eta Holandaren arteko gerran, itsas gudu askotan parte hartu zuen holandarren aurka; Felipe IV.ak bizkonde titulua eman zion.